



HAURRESKOLAK PARTZUERGOA NORAEZEAN EREDU GERENTZIALAREKIN

Uztailak 20, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuek Haurreskoletako mahai negoziatzaileko hitzordua genuen lan hitzarmenaren negoziatioarekin jarraitzeko eta ikasturte berrirako langileen hornidurari buruz hitz egiteko. Bezperan jakinarazi ziguten ordea, 5.aldiz bertan behera uzteko erabakia Haurreskolak Partzuergoa eta administrazioaren partetik.

Hau horrela, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok hainbat eskaera egin ostean eta erantzun ezaren aurrean, Lakuara bertaratzea erabaki dugu Hezkuntza Saitetik eta Haurreskolak Partzuergotik Haurreskoletako langile eta sindikatuekiko erakusten ari diren errespetu faltarengatik azalpenak eskatzera. Bilera aretoan sartu eta gutxira, inolako azalpen gehiagorik gabe, ostiralerako beste bilera baterako deialdia egiteko asmoa azaldu digute baina gertatutakoaren azalpenak eskatu ondoren eta ia 2 ordu beranduago, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordekoida den Hezkuntza Saileko sailburuordearekin hitz egitea lortu dugu. Elkarrizketa horretatik, ostiralerako deialdi berriaren gai ordenean moldaketak exijitu eta onartu dizkigute. Ikasturte berrirako giza baliabideen antolaketari buruzko puntua soilik jartzea lortu dugu, haurreskola gehien azken eguna den honetan 2021/22 ikasturteari dagozkion zehaztapen faltari beharrezko garrantzia eta lehentasuna emanez.

Jokin Bildarratzek hainbestetan azpimarratu duen elkarrizketarako prestutasuna ez du haurreskolekin erakutsi. Hori dela eta, 0-3 zikloarekiko utzikeria, gerentearen noraeza eta familia eta langileekiko errespetu falta salatu nahi ditugu.

Beraz, inoiz baino ageriago geratzen da, Zorione Etxezarraga gerenteak ez dituela bere ardurak eta funtzioak betetzen eta horregatik, berriro ere bere kargugabetzean berresten gara.



Euskal Herrian, 2021eko uztailaren 20an